ERAKUSKETA-ESPAZIOEN ETA HEZKUNTZA-ESPAZIOEN INGURUAN

Testu honek analogia ariketa bat egiten du erakusketa-espazioen eta hezkuntza-espazioen artean. Xabier Salaberria artistaren zenbait gogoeta eta ikaskuntza partekatzen ditu, erakusketa-espazioetan dauden bilgarrien inguruan, hezkuntza-guneetan zein beste gune instituzional batzuetan inferentziak eta aplikazioak egin ahal izateko. Elkarrekin amankomunean ditugun espazio eta denbora antolatuetan begirada jartzea bilatzen du, normalean interes eta helburu zehatzekin prestatuak daudenak, eta gure pertzepzioa nabarmenki baldintzatzen dutenak, nola eragiten diguten jabetu ahal izateko, eta, hala, agian, aldaketak sortu ahal izateko.

GAIAN SARTZEN

Naiz eta arte garaikidean artista bezela jardun, nire erakusketak egiteaz aparte azken urteetan zenbait erakunde eta museoetan lan egin izan dut; arte garaikide arloan ere, baina besteentzat erakusketak antolatzen, zehazki komisarioekin eta zuzendaritzarekin elkarlanean erakusketa aretoak diseinatzen. Kasu konkretu bakoitza aztertuz eta bereziki erantzuten. Hau da, artelan bakoitza, testuingurua eta zenbait gauza kontutan izanik.

ESPAZIOEN DISEINUAREN GARRANTZIA

Horrelako lanetan edo proiektuetan dispositiboen mekanika ikustaraztea gustatzen zait, atsegin zait ikustaraztea dispositiboen mekanika, lekuak desnaturalizatzea, gauzen atzean intentzioak daudela adieraztea. Era berean, erakusketan dauden lanak daukaten izaera mantentzen saiatzen naiz ahal den neurrian, ez dadila jarri diskurtsoaren zerbitzuan. Hau da, testua osagarria eta parte izan dadila ahalegintzen naiz.

"Desnaturalizatzea" hitza maiz erabiltzen dut, gure begien aurrean ditugun gauzak askotan "normalizatuak" ikusten ez ditugulako, paisaia orokorraren barruan denboraren ondorio dena pasta konpaktu bat balitz bezela agertzen zaigulako. Gaur egun artistak gero eta gehiago kontutan izaten dute nola antolatzen diren lanak, hau da, ez bakarrik kontuan izatea markoaren barruan gertatzen dena (objetu artistikoa bere baitan) baizik eta testuingurua eta egoera, lekuan dauden aukerak pentsatuz.

ESPAZIOAK ETA DENBORAREN KUDEAKETA

Bestalde, lekuen antolakuntzan ere denborak kudeatu daitezke. Somatzen dut, gero eta gehiago inposatzen dela atentzioa kontsumoaren menpe, eta azelerazio hau gelditzea agian ez legoke lekuz kanpo. Batez ere artelanen arteko erlazioen eta artelan bakoitzaren alde, hausnarketarako denboraren alde.

ERAKUSKETA ESPAZIOETATIK HARATAGO

Duela urte batzuk, erakusketa aretoetatik kanpoko enkargu bat jaso nuen. Konkretuki museo baten kafetegia antolatzea edo diseinatzea tokatu zitzaidan. Lan honetan, materialak eta hauen erabilpena aztertzeko denbora bat hartu nuen, pertsonen eta gauzen arteko interakzioa gaur eguneko gizartean nolakoa den gogoan izateko ariketa egin nuen, diseinuaren esanahia behatu eta gauzak nola antolatuta zeuden ulertzeko. Erlazio hauetan jarri nuen arreta. Nire buruari egiten nizkion galderak, adibidez, leku zehatz batean objektuekin ditugun harremanak nolakoak dira? Nola ulertu dezakegu modu oso apalean, zeintzuk diren gure benetazko beharrak? Horrelako gauzak adieraztea izan zen lanaren ardatza.

DESNATURALIZAZIOA ETA KUBO TXURIA

XX. mendean kubo txuria inposatu zen, eta arte modernoaren paradigma bihurtu zen, batez ere erdialde edo azken partean. Txuritasuna, espazio garbia, neutroa bezela agertzen zaigu gaur egun ere zenbait instituzioetan, eta espazio txuriaz aparte artelanak banan banan aurkezten hasi ziren. Aldaketa izugarria suposatu zuen; museoetan, momentu horretan, ez zen erabakitzen bakarrik zein gauza sartzen ziren Arte Modernoaren barruan eta zeintzuk ez, baizik eta nola ikusi behar ziren ere.

Deigarria eta adierazgarria gertatzen da modernitatearen asmakizun hau, artelanak nola erakusten ziren eta diren museo eta galerietan. O´Derthy gai hauen inguruan azterketa interesgarriak egin zituen. Ez dut esaten berak esaten duen guztia goitik behera sinistu behar denik, baina bere susmoak baliagarriak izan daitezke.

ERAKUSKETA-ESPAZIOTIK HEZKUNTZA-ESPAZIORA

Ezberdintasunak gaindituz, agian beste arlo batzuetara gerturatu dezakegu ariketa bera. Partekatuak diren lekuetara, ikastetxeen geletara, lantokien espazioetara... gure inguruan ditugun gauza asko badirudi betidanik izan direla bertan, jainkoak ezarritakoak bezala, zerutik eroriak. Pentsamendu xume honen ondoren momentuan konturatzen gera gauzak norbaitek ezarri dituela bertan, une zehatz batean intentzio batekin. Nork asmatu zuen kubo txuria? Nork asmatu zuen ikastetxetako geletan pupitreen ilara-antolakuntza?

Antolatzen ditugun lekuak askotan errebisiorik gabe erabiltzen ditugu "betidanik" horrela izan direlako. Nunbaiten irakurri nuen, pupitreen antolakuntza fabrikeetako produkzio sistemari lotura dagoela, hau da, makinak eta langileak errenkadan jarraituz.

HAUSNARKETARAKO BIDEAN, ESPAZIOAN ERREPARATZEKO HAINBAT GALDERA:

Hezkuntzan ezkutuko curriculum-a existitzen den bezela, zein izango litzateke eskoletako ezkutuko espazioa?
Zeintzuk dira espazioaren bidez transmititzen diren balioak?
Zein jarrera indartzen dira, eta zein gutxiesten?
Zein egitura sozial indartzen dira?
Espazioaren antolaketak zein erlazio mota sustatzen ditu?
Espazioan dauden elementuak nolakoak dira? Zein kolore dituzte? Zein forma hartzen dute? Non daude kokatuak? Zer da sinbolizatzen dutena?
Zein leku hartzen dute pantailek (baldin badaude) espazioan?
Zer denbora mota iradokitzen du espazioak? Bertan luze egotekoa ala azkar aldatzekoa?
Zeintzuk dira ikaskuntza-prozesuetan izan ditzakeen ondorioak?

GUTXIENGOENTZAKO DISEINUA

Victor Papanek, diseinatzaile, filosofo, eta idazlea *Design for the Real World*-en idatzitako saioan, gutxiengoentzako (minorientzako) diseinua aipatu eta aldarrikatzen zuen. Jendarte globala minoriaz osatuta dagoela zioen, milaka eta milaka kasu bereziak osatzen dutela gure gizartea. Modelo estandarizatuak inposatzea nahi izan arren: Marketinaren bidez "normala" aldarrikatzen da, eredu honetatik kanpo gelditzen dena sistema kapitalistarentzako ez omen delako funtzionala.



Victor Papanek *Design for the Real World*.

XABIER SALABERRIA

Xabier Salaberria Donostia 1969. Bere prestakuntza-aldia Arteleku Arte Zentroari lotuta dago,denboran zehar lantoki eta erreferentzia gisa mantentzen duen topagune eta eztabaidagunea. Bertan Txomin Badiolak eta Angel Badosek 1998an edo Peio Irazuk emandako tailerretan parte hartzen du. Lan egin duen egoitza-programa ugariek atzerrian denboraldi luzeak egitera eraman dute. Peio Agirre, Chus Martínez, Lars Bang Larsen, Catalina Lozano eta Batriz Herraezek komisariatutako proiektuetan parte hartu du, besteak beste. Bere azken erakusketen artean honako hauek nabarmentzen dira: Infraestructura CA2M, Madril 2023. Frisoa, Tabakalera Donostia/Museo Oteiza Alzuza (2022-2023). Arkitekturarik gabeko erakusketa bat, Artium Museoa Gasteiz (2021). r de radio, Carreras Múgica, Bilbo (2020). Irabazi Galtzen, Centro Centro, Madril (2019). Hondakin materialak, oztopoak eta erremintak, Sao Pauloko 32. biurtekoa (2016). Can-ni-faire, Carreras Mugica (2016). Prozesua eta metodoa. (A.T.M.O.T.W.) Xabier Salaberria, Bilboko Guggenheim museoa (2013). The Society Without Qualities, Tensta Konsthall Stockholm (2013). Inkontziente-Kontziente (Scenario1 about Europe), GFZK, Leipzig 2011.

INGURUAK ETA GIROAK

Inguruak eta Giroak ekimenak ikaskuntza sustatzen duten bilgarrietan sakontzeko asmoa du. Proposamen hau praktika artistikoetatik datozen hausnarketetan, mekanismoetan eta tresnetan oinarritzen da, gune instituzionalagoetan, hala nola eskoletan, topaleku berriak sortzeko moduak aurkitzeko. Gorputzen sentitzeko eta egoteko moduei hainbeste eragiten dieten espazio eta klima horiek ikaskuntza-prozesuen alde nola eralda genitzakeen aztertzea du helburu.

artaziakoop

GORPUTZALDIAK
HEZKUNTZA ETA DANTZA ARTEAN

ADIERAK
dantza eta hezkuntza elkartea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA